



**ERRETERIA  
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

**Espediente zk./Nº Expediente:** 2022IGOB0009

**Gaia/Asunto:** 2022/06/07 Tokiko Gobernu Batzordea/Junta de Gobierno Local de fecha 07/06/2022

**Tokiko Gobernu Batzarra 2022ko ekainaren 07an eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2022ko ekainaren 07ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- José Manuel Ferradás Freijo

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkaria.

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du, Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria).

**1. 2022ko maiatzaren 17an (2022IGOB0007) eginiko ohiko bilkura eta 2022 ekainaren 1ean (2022IGOB0008) eginiko ezohiko bilkura dagozkien akten irakurketa eta onespena, bidezkoa bada.**

Oharrik gabe onartu dira.

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 07 de junio de 2022.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 07 de junio de 2022, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de La alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejales y Concejales:

**EH Bildu Orereta/Errenteria**

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

**Elkarrekin Errenteria**

- José Manuel Ferradás Freijo

Asiste y da fe del Acto La Secretaria Nagore Sarasola Otermin.

No asiste excusando su inasistencia, Maite Gartzia Ontiveros (Elkarrekin Errenteria).

**1. Lectura y aprobación en su caso de las Actas correspondientes a la Sesión Ordinaria del 17 de mayo de 2022 (2022IGOB0007) y extraordinaria del 1 de junio de 2022 (2022IGOB0008).**

Se aprueban sin observación alguna.



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

### 2. CEAR Comisión Española de Ayuda al Refugiado elkarte herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarten Udal Erregistroan inskribatzeko eskaera. (2022IIIGE0006)

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta Dirua irabaztea xede ez duten elkarten udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribaturik egoteko honako baldintzak bete behar dira:

- 1.- Errenteriako udalerrian lankidetzak egitea.
- 2.- Eusko Jaurlaritzan Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantzaren Saileko Elkarten Erregistroan behar bezala inskribatuta egotea.
- 3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

2022ko apirilaren 12an Alberto Fernández Apellanizek COMISION ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO (CEAR) elkartearen ordezkatzuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen, Eusko Jaurlaritzako Elkarten erregistroan inskribatuta egotea salbu. Elkarten Erregistro Nazionalean inskribatuta dago eta inskripzio horren agiria aurkeztu du.

Kultur aniztasuneko, garapenerako lankidetzako eta giza eskubideetako teknikariak 2022ko ekainaren 1n emandako txostena aztertu da. CEAREk jardueraren nazionalitateko lurralde-eremua badu ere, entitateak egitura eta ekintza nabarmen esta sendoa du E.A.Ean. Gainera, 3 probintzietan ditu bulegoak. CEAR elkarteak Euskal Autonomia Erkidegoan

### 2. Inscripción de la asociación CEAR Comisión Española de Ayuda al Refugiado en el registro municipal de Asociaciones sin ánimo de lucro. (2022IIIGE0006)

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

- 1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria.
- 2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.
- 3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha 12 de abril de 2022, Alberto Fernández Apellaniz en representación de la asociación COMISION ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO (CEAR), solicita ser inscrita en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento, a excepción del certificado de estar inscrita en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco. La misma está inscrita en el Registro Nacional de Asociaciones y aporta certificado de dicha inscripción.

Visto el informe de la responsable de la Subárea de Diversidad cultural, cooperación para el desarrollo y derechos humanos, de fecha 1 de junio de 2022, en el que se indica que, si bien su ámbito territorial de actuación es nacional, la entidad CEAR tiene estructura y actividad relevante e importante en la C.A.V., con sede en las tres provincias. Considera



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

egitura esanguratsua duela dio, oinarri sozial nahikoa (pertsonek bazkideak, boluntario edo antzekoak) CEAREK planteatu dituen lankidetzak jarduerak horiek aurrera eramateko Errenteriako udalerrian. Bertan adierazi du eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa zuzena dela eta elkartearen inskribatzearen aldekoa dela irabazi asmorik gabeko elkartearen erregistroa arautzen duen erregelamendua xedatutako baldintza, hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzako erregistroan inskribatua egon behar izatea, malgutasunez interpretatuz.

Idazkari Orokorraren txostena ikusita

Kultur Aniztasuneko delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Kultur Aniztasuneko arduradunak espedientearen jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrek, aho batez, honako hau

### ERABAKI DU

1.- **COMISION ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO (CEAR)** elkartearen, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkartearen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.- Honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

**3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena onartzea, Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua finantzatzeko. (2021ZHIT0018)**

Gipuzkoako Foru Aldundiak proposaturiko

que la asociación CEAR dispone en la Comunidad Autónoma del País Vasco de estructuras significativas con base social (personas asociadas, voluntariado o asimilable) que permiten prestar las actividades de colaboración planteadas por la asociación en el municipio de Errenteria. La documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación permitiendo interpretar con mayor flexibilidad la exigencia de inscripción en el registro del GV previsto en el reglamento municipal que regula el registro de asociaciones sin ánimo de lucro.

Visto el informe de la Secretaria Gral.

Vista la propuesta de acuerdo del delegado de Diversidad Cultural y la conformidad dada por la responsable de Diversidad Cultural a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

### ACUERDA

1.- Proceder a la inscripción de la asociación **COMISION ESPAÑOLA DE AYUDA AL REFUGIADO (CEAR)** en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin Ánimo de Lucro.

2.- Dar cuenta a la interesada así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

**3. Aprobación del convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria para la Financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.(2021ZHIT0018)**

La Diputación Foral de Gipuzkoa ha presentado una



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

“Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errenteriako Udalaren arteko hitzarmena, Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua finantzatzeko”, ikusi da.

Hitzarmena, 2018an sinaturikoa ordezkatzera dator.

Departamentuko teknikariak aldeko txostena eman du 2022ko maiatzaren 16ean.

### ZUZENBIDE OINARRIAK

-Urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.

-Apirilaren 7ko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea, 17.1.13 artikulua Gizarte zerbitzuen antolamendua, plangintza eta kudeaketa.

-Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.

- Abenduaren 5eko 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuen.

-Zerbitzuen Ordenantza Fiskala.

- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua arautzen duen udal arautegia

### Hitzamenaren objektua eta helburuak:

Hitzamenaren objektua eta helburuak ondorengoak dira: udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuen foru finantzaketarako baldintzak definitzea.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 legearen, 42.4 artikuluen arabera, zerbitzu hori udalen eskumen-eremuan ematen da, administrazio hartzaile gisa; aldiz, 41.3 artikuluen arabera, lehen zerbitzuen kudeatzaile ziren foru-aldundiei –beste

propuesta de “Convenio de Colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria para la Financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

Dicho convenio viene a sustituir al suscrito en 2018.

La técnico del Departamento emite informe favorable el 16 de mayo de 2022.

### FUNDAMENTOS DE DERECHO

-Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

-Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, artículo 17.1.13 Ordenación, planificación y gestión de los servicios sociales.

-Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

-Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

- Ordenanza Fiscal sobre la prestación del servicio.

- Reglamento regulador del Servicio de Ayuda a Domicilio.

### Objeto y objetivos del Convenio:

Se pretende definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado en el municipio a personas calificadas como dependientes así como a otros colectivos sujetos de atención.

En virtud del art. 42.4 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, la prestación de este servicio recae en el ámbito competencial municipal, como administración receptora, mientras que en virtud del artículo 41.3 a las diputaciones



## ERRETERIA UDALA

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

batzuk esleitzen zaizkie eskusiboki, udalerrri batzuek zituztenak, hala nola mendetasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak.

Eskumen-birbanaketa horren ondorioz, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean, hiru euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea aurreikusten da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko finantza-nahikotasuna bermatzeko.

Beste mekanismorik ezean, ELZren baterako finantzaketarako lankidetzaz hitzarmenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen arteko finantza-egokitzapenean laguntzen du, abenduaren 5eko Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearekin bat etorritik.

### **Hitzarmenaren iraupena eta indarraldia:**

Hitzarmena sinatzen den egunean jarriko da indarrean, eta ondorio ekonomikoak izango ditu, 2021eko urriaren 1etik aurrera, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du. Hitzarmen hau berariaz luzatu ahal izango da, amaitzen denean, urte natural bateko aldietan, betiere luzatutako ekitaldirako aurrekontu-zuzkidura egokia eta nahikoa badago.

Hitzarmena sinatzen duten alderdiek aho batez eta aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu baino lehen, adostu ahal izango dute hitzarmena luzatzea, beste lau urtez gehienez, edo hitzarmena azkentzea.

### **Finantziario gastuak:**

Lankidetzaz hitzarmenak ez dio inolako finantziario kostu gehigarririk suposatzen Udalari.

Ogasun departamentutik adierazi da diru-sarrera bat

forales anteriormente gestoras del servicio, se les asignan otros también en exclusiva, de los que algunos municipios disponían, como las residencias y los centros de día para personas mayores en situación de dependencia.

Derivado de esta redistribución competencial, en la disposición transitoria tercera de la citada ley, está previsto un reajuste financiero entre las tres administraciones públicas vascas con el fin de garantizar la suficiencia financiera para la provisión del Catálogo de Prestaciones y Servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

A falta de otro mecanismo, el convenio de colaboración para la cofinanciación del SAD contribuye al reajuste financiero entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y los ayuntamientos del territorio, de acuerdo a la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales

### **Duración y vigencia del Convenio:**

El convenio entrará en vigor el día de su firma, surtiendo efectos económicos desde el 1 de octubre de 2021 y su vigencia se extenderá hasta el 31 de diciembre de 2023. Este convenio podrá ser prorrogado de forma expresa a su finalización por periodos de 1 año natural, siempre que exista consignación presupuestaria adecuada y suficiente.

No obstante, las partes firmantes del convenio podrán acordar unánimemente y antes de la finalización del plazo previsto en el apartado anterior, su prórroga por un periodo de hasta cuatro años adicionales o su extinción.

### **Gastos de financiación:**

El convenio de colaboración no supone ningún coste de financiación añadido para el Ayuntamiento.

Desde el departamento de intervención se comunica



**ERRETERIA  
UDALA**

Idazkaritza Orokorra / Secretaría General

izanik ez dela fiskalizazio txostenik behar.

Aholkulari juridikoak oniritzia eman dio hitzarmenari eta espedientean jasoa gelditu da.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatzak eskuordetutako eskumenak baliatuz eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren proposamenarekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau

**ERABAKI DU**

1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetzak hitzarmena onartzea, Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua finantzatzeko

2.-Zinegotzi arduraduna ahalmentzea, zuzenbidean bidezkoa den neurrian, Lankidetzak Hitzarmen hori sinatu dezan, eta akordio hau eraginkorra izan dadin gauzatu beharreko egintzak gauzatu eta behar diren dokumentu publiko zein pribatu guztiak eman ditzan.

3.- Hitzarmenaren berri ematea gardentasun araudiak zehazten duen moduan.

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

Errenteria, 2022ko ekainaren 07a

Idazkaria / La Secretaria

Nagore Sarasola Otermin

que al tratarse de un ingreso no precisa de informe de fiscalización.

El asesor jurídico ha dado su visto bueno al texto del convenio, el cual consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento y a propuesta del concejal delegado de Servicios Sociales, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

1.- Aprobar el convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Errenteria para la Financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio.

2. Facultar al Concejal Delegado, en la medida que proceda en derecho, para la suscripción del Convenio de Colaboración, y para la ejecución de los actos y la entrega cuantos documentos públicos o privados sean necesarios para que el presente acuerdo se haga efectivo.

3.- Dar cuenta del convenio en los términos que determine la normativa de transparencia

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta levanta la Sesión, siendo las 09:25 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extendiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 07 de junio de 2022



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU78122366-c94d-4024-97b5-7a8c510a4b74**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikokoan: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2022IGOB0009-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)